

Argitalpenetarako Jardunbide Gida

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Argitalpen Batzordeak (liburuen argitalpena, *Uztaro* aldizkaria eta UEUK kaleratzen dituen gainerako aldizkarien Erredakzio Kontseiluak barne) Argitalpenen Etika Batzordeak (Committee on Publications Ethics, [COPE](#)) ezarritako Kode Etikoa eta Jardunbide Egokiak betetzen ditu. UEUren argitalpenen gida hau horietan oinarritzen da.

Garrantzitsua da argitaratzean parte hartzen duten alderdi guztiengandik espero den jokabide etikoaren arauak adostea: egileak, argitaletxea, aldizkariaren editoreak, aditu ebaluatzaileak, Argitalpen Batzorde, Erredakzio Kontseiluak eta UEU.

Editore, Argitalpen Batzorde, Aldizkari eta Erredakzio Kontseiluen betebeharrak orokorrak

- Argitaletxea eta Aldizkariak etengabe hobetzen direla zaintzea.
- Argitaratzen diren lanen kalitatea bermatzea.
- Argitaletxe eta Aldizkariaren edukiaren osotasun akademikoari eustea.
- Adierazpen-askatasuna errespetatzea.
- Argitalpen Batzordearen eta Erredakzio Kontseiluaren osaera aldian behin berrikustea.
- Argitaletxearen eta Aldizkariaren etengabeko hobekuntza sustatzea.
- Egile eta kontribuzio onenak hautatzea.
- Argitaletxera eta Aldizkarietara argitaratzera bidalitako eskuizkribuak aztertzea.
- Ebaluatzaileen anonimotasuna bermatzea.
- Ez gainjartzea, inola ere, merkataritza-interesik argitaletxeak eta aldizkariak bere gain hartzen dituen konpromiso intelektual eta etikoei.
- Akatsak antzemanaz gero, zuzenketak, atzera-egite eta barkamen-eskaerak argitaratzeko prest egotea.
- Argitalpenerako Jardunbide Gidaren betetzea zaindu eta eguneratzea, behar denean, batzorde eta kontseiluen arteko elkarlanean.

Irakurleekiko harremana

Argitalpen Batzordeak, Aldizkarien zuzendaritzek eta Erredakzio Kontseiluek arau eta gidak landuko dituzte, egile eta laguntzaileen jardunbide egokiari lagunduko diotenak, jokabide desegokiak saihesteko.

Argitalpen Batzordeak, Erredakzio Kontseiluek eta editoreek argitaratutako azterlanak aditu independenteek behar bezala ebaluatu dituztela bermatuko dute.

Kanpo-ebaluazioa egiten ez duten lanek eta aldizkariko atalak argi identifikatuta agertuko dira.

Argitaratutako ikerketei edo ikerketa finantzatu duten babesleei buruzko informazioa emango zaie irakurleei.

Egileekiko harremana

Aldian-aldian egileentzako jarraibideak berrikusiko dira, informazio-iturrietarako loturak zainduz.

Harrera-datak eta onarpen-datak adieraziko dira.

Ekarpenen gaiaren araberako ebaluatzaileen hautaketa egokia bermatuko da.

Erredakzio Kontseiluek eta editoreek beharrezko neurriak hartuko dituzte argitaratutako materialaren kalitatea ziurtatzeko, eta plagioak eta jatorrizkoak ez diren lanak argitaratzea saihesteko.

Parekoen berrikuspen-prozesua

Parekoen berrikuspen egokia funtsezko elementutzat jotzen da. Ebaluatzaileek eskuizkribuaren argitaratzeari buruzko laguntza ematen diote Argitalpen Batzordeari eta Erredakzio Kontseiluari. Egileekin bideratzen den komunikazioaren bidez lanaren hobetzean ere parte hartzen dute.

Argitalpen Batzordeak eta Erredakzio Kontseiluek ebaluatzaileen lana gainbegiratu eta une oro kalitate zientifikoa bermatuko dute.

Ebaluatzaileei objektiboak izatea eskatuko zaie, eta epaia eta ebaluazioa argiak eta zehatzak izatea, behar bezala argumentatuta eta inpartzialak. Era berean, interes-gatazkak saihesteko dira (pertsonalak, akademikoak, merkataritzakoak, etab.). Ahal den neurrian, eskuizkribuan aipatzen ez diren argitalpen garrantzitsuak adierazi beharko ditu ebaluatzaileak. Eskuizkribuan agertzen diren eta ebaluatzaileak ezagutzen dituen eta jada argitaratuta

dauden beste artikulu batzuetako antzekotasunak edo identitate partzialak ere adierazi behar ditu.

Ebaluatzaile bat eskuizkribu jakin bat ebaluatzeko behar bezala gaitua ez badago edo, jakin badaki ezin duela arrazoizko denboran egin, berehala jakinarazi beharko dio zuzendaritzari.

Ebaluatzailearen bati jokabide desegokia antzemanaz gero, beharrezko neurriak hartuko ditu Argitalpen Batzordeak edo Erredakzio Kontseiluak.

UEUren Berdintasunerako konpromisoa

UEUk, erakunde berdinzalea den aldetik, pertsona guztien arteko berdintasun politiko eta soziala bultzatzeko ardura du, eskubideei, erantzukizunei eta aukerei dagokienez.

UEUk jendarte berdinzale bat eraikitzeko bere alea jarriko du eta edozein diskriminazio egoera edo jokabide iraultzeko lan egingo du. Genero, adin, klase, arraza, jatorri, erlijio, kultura, nazio, hizkuntza, aniztasun funtzional, gorpuzkera, sexu-joera edota bestelako ezaugarri pertsonal edo sozialek eragindako desberdinkeriak gainditzeko konpromisoa hartzen du, eta konpromiso hori egiazki gauzatu ahal izateko eraldaketa-prozesu bat abian jarri du erakundearen barruan, lantaldean eta hurbileko jardun-eremuetan.

Norabide horretan, UEUk bere I. Berdintasun Plana martxan jarri du 2023-2026 urteetarako. Planak eragin-eremuak zehaztu ditu bai eta bakoitzeko helburuak eta ekintza-kopurua ere. Erakundearen, lantaldearen zein jardueraren eragiteko helburuak eta ekintzak finkatu dira, eta erakundeari dagokion eremuan, besteak beste, indarkeria matxistaren kontrako eta prebentziorako protokolo bat osatzea da helburuetako bat.